

600P EREDUAREN JARRAIBIDEAK - PDF BETEGARRIA **NORBANAKOEN ARTEKO MAILEGU PERTSONALA**

Noiz erabil dezaket?

Norbanako baten mailegua jasotzen duen pertsona fisikoa bada eta zergaren aurkezlea bada soilik.

Zer inprimaki bete behar dut?

- Aurkezpen orria
- Autolikidazio bat mailegu hartzaile bakoitzeko
- Mailegu emaile bat baino gehiago badago: eskualdatzaileen eranskina

Zer dokumentazio aurkeztu behar dut?

- Mailegu kontratuaren jatorrizkoa eta kopia, esku hartzen duten guztiek izenpetuta.
- Banku transferentziaren ordainagiria.
Argi utzi behar da dirua mailegu hartzailearen kontutik ateratzen dela
- NANaren kopia, parte hartzailea Arabako Foru Aldundiko zergadunen erroldan alta emanda ez badago

Non aurkez dezaket autolikidazioa?

Foru Ogasunaren hemengo bulegoetan:

- **Gasteizen**, Samaniego kaleko 14 zenbakian, Zergadunekiko Harremanetarako Zerbitzuko "leihatila bakarrean"
- **Laudion**, Herriko plazan, z.g.
- **Guardian**, San Juan plazako 1. zenbakian

Hitzordua eskatu behar da 945 18 15 55 telefonoan edo AFaren webgunean:

<https://web.araba.eus/eu/ogasuna/hitzordua>

Zergadunekiko Harremanetarako Zerbitzuko "leihatila bakarrera" joanda aurkeztu behar dira.

AURKEZPEN ORRIA

AURKEZLEA

Subjektu pasiboetako bat izan behar da (mailegu hartzaileak, mailegua jasotzen dutenak).

DOKUMENTUAREN IDENTIFIKAZIO DATUAK

Laukiak bete behar dira:

- Dokumentuaren data: adierazi zein egunetan formalizatu zen mailegu kontratua.
- Kontratua egiteko lekua: kontratua zein herri edo hiritan sinatu zen.
- Lurraldea: kontratua zein lurraldetan sinatu zen.

AUTOLIKIDAZIO KOPURUA

Adierazi zenbat autolikidazio aurkeztu diren.

Subjektu pasibo bakoitzeko (mailegu hartzailea) autolikidazio bat aurkeztu behar da.

Adibidez:

Joseba eta Luciak Markel eta Jaioneri dirua utzi diete.

Subjektu pasiboak mailegu hartzailek dira, Markel eta Jaione, haiek jaso baitute mailegua. Bi (2) autolikidazio aurkeztu behar dira.

AUTOLIKIDAZIOA

SUBJEKTU PASIBOA

Mailegu hartzailea da (mailegua jasotzen duena).

Subjektu pasibo (mailegu hartzaile) bakoitzeko autolikidazio bat aurkeztu behar da.

ADI

AUTOLIKIDAZIO BAKOITZA EREDU BATEAN AURKEZTU BEHAR DA, BERE ERREFERENTZIA ZENBAKIA DAUKALA.

AUTOLIKIDAZIO BAT BETE ETA INPRIMATU ONDOREN, BESTE BAT AURKEZTU BEHAR IZANEZ GERO, BESTE PDF BETEGARRI BAT IREKI BEHAR DA (EZIN DA BERRIZ IDATZI AURREKOAREN GAINEAN).

ESKUALDATZAILEA

Eskualdatzailea mailegu emailea da, hau da, mailegua egiten duena.

Mailegu emaile bat baino gehiago badago, autolikidazio bakoitzarekin batera "eskualdatzaileen zerrenda" eranskina joango da. Hala bada, lehenengoa 600P ereduan erregistratuko da, eta gainerakoak zerrendan.

ESKUALDATZE KOEFIZIENTEA

Mailegu emaile bakoitzari autolikidazioaren subjektu pasiboari mailegatutako guztizkoaren gainean dagokion % adieraziko da.

Eskualdatzaile guztien eskualdatze koefizienteen batura subjektu pasiboaren eskuratze koefizientea izan behar da.

1. adibidea:

Julianek mailegua eman die bere alaba Arantzari eta bere suhi Migueli.

Bi autolikidazio aurkeztu behar dira:

1. autolikidazioa – Arantza subjektu pasiboa

| | | |
|---------|--------------------|------|
| Julián | Eskualdatze | % 50 |
| | koefizientea % | |
| Arantza | Eskuratze | % 50 |
| | koefizientea % | |

2. autolikidazioa – Miguel subjektu pasiboa

| | | |
|--------|--------------------|------|
| Julián | Eskualdatze | % 50 |
| | koefizientea % | |
| Miguel | Eskuratze | % 50 |
| | koefizientea % | |

2. adibidea:

Julianek eta Felisak mailegua eman diote beren seme Aitorri (ezkongabea).

Autolikidazio bat aurkeztu behar da

1. autolikidazioa – Aitor subjektu pasiboa

| | | |
|--------|--------------------|-------|
| Julián | Eskualdatze | % 50 |
| | koefizientea % | |
| Felisa | Eskualdatze | % 50 |
| | koefizientea % | |
| Aitor | Eskuratze | % 100 |
| | koefizientea % | |

3. adibidea:

Julianek eta Felisak mailegua eman diete beren seme Aitorri (ezkongabea) eta alaba Arantzari (ezkondua ondasunen banantze eraentzan)

Bi autolikidazio aurkeztu behar dira:

1. autolikidazioa – Aitor subjektu pasiboa

| | | |
|--------|--------------------|------|
| Julián | Eskualdatze | % 25 |
| | koefizientea % | |
| Felisa | Eskualdatze | % 25 |
| | koefizientea % | |
| Aitor | Eskuratze | % 50 |
| | koefizientea % | |

2. autolikidazioa – Arantza subjektu pasiboa

| | | |
|---------|--------------------|------|
| Julián | Eskualdatze | % 25 |
| | koefizientea % | |
| Felisa | Eskualdatze | % 25 |
| | koefizientea % | |
| Arantza | Eskuratze | % 50 |
| | koefizientea % | |

ESKUALDATZAILE KOPURUA

Lauki honetan eskualdatzaileen (mailegu hartzaileen) guztirako kopurua adierazi behar da.

SORTZAPEN DATA

Dokumentu pribatua egin bada, sortzapen eguna autolikidazioa aurkezten den eguna da, Kode Zibilaren 1.227. artikuluan azaltzen diren kasuetan izan ezik. Izan ere, kasu horietan sortzapen eguna hauetako bat da: dokumentua erregistro publiko batean ezartzen edo inskribatzen den eguna, sinatzaileetako bat hil den eguna edo funtzionario publiko bati bere lanbidea dela eta eman zaion eguna.

DATU TEKNIKOAK

Maileguaren **printzipala** adieraziko da (mailegutzen **guztirako zenbatekoa**)

ESKURATZE KOEFIZIENTEA

Autolikidazioaren **subjektu pasiboari maileguan emandako printzipalaren %** adieraziko da (kontsultatu "ESKUALDATZE KOEFIZIENTEA" ataleko adibideak).